

**Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

2025-01-27

Sukaldariei eta garbitzaileei gutuna:

Kaixo lankide,

LAB, STEILAS, ELA eta CCOOek deituta, hezkuntza publikoan aritzen garen irakasle, Haurreskolak Partzuergoko eta sukalde eta garbiketako langileak greba ziklo batean murgilduta gaude iraungita dauden lan hitzarmenak berri eta hobetzeko helburuz. Izan ere, Hezkuntza Sailari hezkuntza publikoa indartu eta urgentziaz behar duen inbertsioa egin dezan eskatzen diogu, langileon lan baldintzak hobetu eta baliabideez hornitu ditzan, kalitatezko hezkuntza helburu.

Izan ere, sukalde eta garbiketan **lan zamak** arintzeko neurriak hartu behar dira lanaldia eta ratioak murriztuz, erretiroa aurreratzeko plantillen **gazteberitze** plana garatu; galdutako **eros-ahalmena** berreskuratu, ikastetxe publikoen fusio eta itxieren zein pribatizazioen aurrean **enplegua egonkortu eta bermatu**, ordezkoen lan baldintzak hobetu, funtzioak zehaztu eta kategoriak egokitu. Era berean, Hezkuntza publikoko sistema osoa **euskaldunduko** duen hezkuntza politikak abiaraztea, langileon **lan-osasuna** zainduko eta bermatuko dituzten azterketa eta neurri zuzentzaile adostuak ezartzea eta kalitatezko **berdintasun eta hezkidetz**a plan egonkorak garatu ahal izateko baliabideak jartzea.

Hezkuntza Sailak, beste behin ere, grebak baldintzatu nahi ditu eta ezarritako gehiegizko zerbitzu minimoen bidez grebarako eskubidea ukatu zaizue ehunka langileei. Greba egunean sukaldariei %10eko zerbitzu minimoak ezarri zaizkizue eta garbitzaileei %50ekoak.

Hau dela eta, bai **Hezkuntza Sailari eta bai Lan Sailari** (honek ezartzen ditu zerbitzu minimoak) **idatzi bat aurkeztu diegu sindikatuok**. Bertan eskatu diegu:

- Zerbitzu minimoen agindua berraztertu dezatela eta Proporziozkoak diren Zerbitzu minimoak ezar ditzatela.
- Garbitzaileen kasuan gainera, akats bat dagoela eta zuen dezatela; izan ere aurreko greba deialdietan ez bezala, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako eskoletan zerbitzu minimoek ezarri baitituzte nahiz eta haur txikirik ez egon bertan.


Ez dakigu erantzunik izango dugun. Erantzunik baldin badaukagu jakinaraziko dizuegu berehala. Edozein kasutan sindikatuok gogorarazi nahi dizuegu, aldaketarik ez dagoen bitartean, **sukaldarientzako ezarritako zerbitzu minimoak langileen %10ekoak direla eta garbitzaileen kasuan %50ekoak. Ez hauek baino gehiago.**

Beraz zerbitzu minimo horiekin ahal duzuen haurren arreta eta espazioen garbiketa soilik bermatzeko ardura daukazue. Zentzu honetan eskoletako zuzendaritzei eskatu diegu **familiei idatzi bat** helarazteko adieraziz urtarilaren 30ean eta 31an sukaldeetako langileak eta garbiketako langileak grebara deituak zaudetela eta, bereziki **sukaldeen kasuan, ezin dela ziurtatu haur guztiei jantokiko arreta egokia** eman ahalko zaiela.

LAB

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza



Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

27-01-2025

Carta al personal de cocina y limpieza:

Kaixo lankide,

Convocados por LAB, STEILAS, ELA y CCOO, el profesorado, el Consorcio Haurreskolak y los trabajadores de Cocina y Limpieza que trabajamos en la educación pública estamos inmersos en un ciclo de huelga con el objetivo de renovar y mejorar los convenios laborales caducados. De hecho, solicitamos al Departamento de Educación que refuerce la educación pública y realice la inversión necesaria para mejorar las condiciones de trabajo de los trabajadores y dotarlos de recursos con el objetivo de una educación de calidad.

Se deben adoptar medidas para aliviar las **cargas de trabajo** en Cocina y Limpieza reduciendo jornada y ratios, desarrollar un **plan de rejuvenecimiento** de las plantillas para adelantar la jubilación; recuperar el **poder adquisitivo** perdido, **estabilizar y garantizar el empleo** ante fusiones y cierres de centros públicos y privatizaciones, mejorar las condiciones laborales de los sustitutos, definir funciones y adaptar categorías. Asimismo, la puesta en marcha de políticas educativas que **euskaldun**icen el conjunto del sistema educativo público, el establecimiento de estudios y medidas correctoras consensuadas que preserven y garanticen la **salud laboral** de este personal y la dotación de recursos para el desarrollo de planes estables de **igualdad y coeducación** de calidad.

El Departamento de Educación, una vez más, quiere condicionar las huelgas y mediante los servicios mínimos abusivos establecidos se ha denegado el derecho a la huelga a cientos de trabajadores. Durante la jornada de huelga se han establecido unos servicios mínimos del 10% para los cocineros y del 50% para el personal de limpieza.

Por ello, los sindicatos hemos presentado un **escrito tanto al Departamento de Educación como al de Trabajo** (servicios mínimos que éste establece). Allí les hemos pedido:

- Revisar la orden de servicios mínimos y al establecimiento de Servicios Mínimos Proporcionados.
- En el caso del personal de limpieza, además, les hemos comunicado que debe haber un error; ya que, a diferencia de las anteriores convocatorias de huelga, han establecido Servicios Mínimos en las escuelas de Secundaria y Formación Profesional aunque el alumnado de estos centros no sea de niños y niñas de corta edad.

No sabemos si tendremos respuesta. Si tenemos una respuesta os la haremos saber inmediatamente. En cualquier caso, los sindicatos os recordamos que, mientras no haya cambios, los **servicios mínimos** establecidos para los **cocineros son del 10% del personal** y del **50% en el personal de limpieza. No más que estas.**

Por lo tanto, vuestra responsabilidad se ciñe a garantizar únicamente la atención a los niños y niñas y la limpieza de los espacios que éstos servicios mínimos os permitan. En este sentido, hemos pedido a las direcciones de las escuelas que les hagan llegar un **escrito a las familias** indicando que los días 30 y 31 de enero el personal de cocina y el de limpieza están llamados a la huelga y que, especialmente en el caso de las **cocinas, no se puede asegurar que se pueda dar a todos los niños una atención adecuada** en el comedor.

LAB

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza